

Plaza jaialdia

«Musika ez da partitura»

Ensemble Kapsberger hirukoteak bat-batean joko ditu bihar antzinako hainbat pieza

Joxi Ubeda / Donostia

Rolf Lislevand, Bjorn Kjellemyr eta Pedro Estevan Ensemble Kapsberger taldeko musikariak bat-batean ariko dira bihar XVII. eta XVIII. mendeetako hainbat konpositoreren obren gainean, Kursaleko erabilera anitzeko aretoan. «Barrokoaren eta gure garaia arteko topaketa da, eta horren guztiaren etorkizuneko ikuspegia ematen dugu», Ensemble Kapsberger-eko kideen hitzetan.

KAPSBERGER, Sanz eta Santiago de Murcia antzinako konpositoreen piezak joko dituzte Ensemble Kapsberger taldeko kideek bihar Plaza jaialdian. Bat-batean ariko dira, «obren garaiko estiloan». Rolf Lislevand (*chitarra*, gitarra barrokoa), Bjorn Kjellemyr (*colascione*, kontrabaxua) eta Pedro Estevan (perkusioa) dira taldeko kideak, eta hainbat urtetan izan dira Italiako liburutegietan, XVII. eta XVIII. mendeetako musikei buruzko liburuak eta eskuizkribuak aztertzen. «Musika honek bat-batean aritzeko elementuak badituela ikusi genuen», dio Rolf Lislevand.

Hala ere, bazekiten ez zela izango lan erraza musika horietan sartzea: «Izan ere, estilo horiek orain ez dira existitzen». Hasieran, «hizkuntza bereganatu» eta zehatz-zehatz jotzen zituzten piezak. «Orain, berriz, libre sentitzen



EDURNE KOCH

Ensemble Kapsberger taldeko Bjorn Kjellemyr, Rolf Lislevand eta Pedro Estevan musikariak, atzo, Kursalean.

gara musika horrekin jolasteko eta bat-batean aritzeko».

Pedro Estevan perkusio joleak atzo esan zuenez, antzinako musikan ez omen zen «inoiz» ezer idatzi perkusioko musika tresnekin jotzeko. «Dantzako idatzietan perkusioko tresnei buruzko aipamen gehiago agertzen dira musika idatzietan baino».

Ondorioz, garaiko hainbat grabatu eta margo hartu eta eskuen posizioari erreparatu behar izan die, garai hartako

perkusioko joleek zein teknika erabiltzen zuten jakiteko.

Musika oro «historikoa» dela dio Rolf Lislevandek: «Jazza jo dezakezu, bat-batean, baina betiere

60ko, 70eko eta beste hainbat garaiko estiloren gainean. Inprobisazioan inoiz ez da existitzen erabateko askatasuna».

izan da Ensemble Kapsberger hirukoteko kideentzat. «Musika klasikoa bakarturik zegoen, baina gu saiatu gara

urrunago joaten musika klasikoarekin». Ensemble Kapsberger taldea 1993an sortu zen, eta orain arte lau disko osatu dituzte «espiritu horrekin».

Emozioak komunikatzea

Taldeak hiru epe izan ditu. Lehenengoan, tradizio barrokoa «estilo zuzenaz» jorratu zuten. Bigarren, berriz, «antzinako musika jotzeko modua eztabaidan jarri genuen, autentikotasun eta historiako parametroak kontuan izanik». Hirugarren

eparean berri bihar bertan emango dute Plaza jaialdian, Lislevandek esanetan: «Barrokoaren eta gure garaia arteko topaketa izango da, eta hori guztiaren etorkizuneko ikuspegia ematen dugu».

Konpositore barrokoa izan zen Kapsberger, «konpositore moderno modernismo barrokoa egiten baitzuen», taldeki-deek atzo esan zuten. «Sortzailea izan zen, berri-tzailea, gehiegi. Publikoak erantzun eskasa eman zion, baina egun entzun ahal dugu musika hori, eta aurrez aurre jarri Kapsberger eta gure garaia».

Bjorn Kjellemyr norvegiarra da. Bere herrian ez dago musika ohitura handirik, baina hori, muga izan baino gehiago, «askatasuna» izan da Kjellemyrrentzat. Musika klasikoa eta barrokoa «zurruna» dela dio bere taldekide Rolf Lislevandek: «Antzinako musikari buruz ez dago informazio asko, eta musikari batentzat frustrazioa izan daiteke argibiderik gabe jotzea, baina hori guretzat askatasun handiago da».

Rolf Lislevandek berak musika horren «behin betiko» ikuspegia izan nahi du antzinako musikaren inguruan. «Musika horren praktika ulertzeko. Izan ere, musika ez da partitura. Emozio musikalki komunikatzea espero dugu, gure hizkuntzan, baina ulertzeko moduan, kolore eta esaldi berriei».

Biharko saioa egin eta gero, Alemanian eta Norvegian ariko da hurrengo bi hilabeteetan Ensemble Kapsberger taldea.

ROLF LISLEVAND

■ ■ ■ «Erabateko askatasuna inoiz ez da existitzen inprobisazioan»

Waterson-Carthy eta Hiru Truku, batera

GAUR ez bada, beste inoiz ikusteko apenas aukerarik izango dugun bi kontzertu aurkeztuko ditu gaur Plaza jaialdiak. Lehenak Norman Winston jazz abeslaria, Iain Ballamy saxo jolea eta John Parricelli gitarra jolea bilduko ditu. Hirurak puntako musikariak dira jazzaren eta inprobisazioaren arloan, eta lehen aldiz joko dute elkarrekin, Plazan. Kontzertu bakarra izango da.

Bigarrenak ere harremanetan diren baina elkarrekin inoiz jo ez duten musikariak bilduko ditu: ingelesak eta euskaldunak kasu honetan. Bateatik, Martin Carthy buuru duen taldea; Carthy bera, haren emazte Norma Waterson, Eliza Carthy alaba eta Saul Rose melodeoi jolea dira taldekideak.

Martin Carthy onenetakoa da Ingalaterrako balada tradizionalak jotzen. Folk mu-

sikaren berritzaile eta eragile handienetakoa dugu Carthy. Kantatzeko era hunkigarria eta gitarra jotzeko berezitasuna ezaugarri nagusi ditu. Albion Country Band eta Brass Monkey taldeetan zein bakarlarik gisa landutako ibilbide luze eta emankorra garatu du.

Asteazkenean iritsi zen Euskal Herrira, eta kontzertuak eskaini ditu Gasteizen eta Bilbon bakarlarik gisa.

Donostian, berriz, lehen aipaturiko taldearekin ariko da.

Bestetik, haiei gehituko zaie Ruper Ordorika, Bixente Martinez eta Joseba Tapiaren Hiru Truku. Bi taldeen artean adiskidetasunezko harremana dago. Martin Carthy gitarra sartu zuen Hiru Trukuren azken diskoan, eta Ordorikak ez du inoiz ukatu horrekin amets bat betetzuela, bere idolo nagusia baita Carthy.

Musikaz gain, *Le Cirque Retinien* ikuskitzuna aurkeztuko da gaur. Marrak, argi zirriborroak, soinuak... uztartzen ditu Christophe Cardoen frantziarrak.

Goizean Ensemble Kapsberger antzinako musika taldeak maisu klasea emango du Plazako Kafetegian, eta arratsaldean, Antonio Escotado idazleak *El bosque y los emboscados* izeneko hitzaldia eskainiko du.

gaurko egitaraua

Le Cirque Retinien (Haur tailerrak): 12:00etan, Arkupean.

Ensemble Kapsberger (Maisu klasea): 12:00etan, Plazako Kafetegian.

Antonio Escotado: *El bosque y los emboscados*: 16:00etan, Plazako Kafetegian.

Le Cirque Retinien: 17:00etan, Arkupean.

Norma Winstone-Iain Ballamy-John Parricelli: 18:00etan, Plazako Aretoan.

Waterson-Carthy eta Hiru Truku: 21:00etan, Plazako Aretoan.

Topaketak: 23:30etan, Plazako Kafetegian.